

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

VITORIA-GASTEIZKO UDALA

KULTURA ETA HEZKUNTZA SAILA

Vitoria-Gasteizko Udaleko Tokiko Gobernu Batzarrek 2026ko ekainaren 12an hartutako erabakiaren laburpena; bertan onartzen baitira ikasteko zailtasunak dituzten neska-mutikoei laguntzeko deialdia eta oinarriak, 2026-2027 ikasturtea

BDNS(Identif.): 914329.

Diru-laguntza orokorre buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 17.3.b eta 20.8.a artikuluetan ezarritakoaren arabera, deialdiaren laburpena argitaratzen da. Horren testu osoa datu base nazionalen aurki daiteke. Diru-laguntzak: (<https://www.infosubvenciones.es/bdnstrans/GE/es/convectoria/914329>).

Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 17.3.b eta 20.8 artikuluetan aurreikusitakoaren ildotik, deialdiaren laburpena argitaratzen da. Deialdiaren testu osoa Diru-laguntzen Datu-base Nazionalen kontsulta daiteke.

Lehena. Onuradunak

Vitoria-Gasteizko ikastetxeak izango dira laguntzen hartzaileak, zehazki, lehen hezkuntzan irakaskuntza gauzatzen dutenak. Hala, ikasteko zailtasunak dituzten ikasleei laguntza emateko erabiliko dute, betiere udalaren Hezkuntza Zerbitzuak (Kultura eta Hezkuntza Saila) onartzen badu, ikastetxeek aurkeztzen dituzten eskaerekin eta txostenekin bat etorritik.

Bigarrena. Helburua

Dirulaguntzen deialdi honen xedea hau da: 2026-2027 ikasturtean Vitoria-Gasteizko ikastetxei laguntza ekonomikoa ematea, lehen hezkuntzan matrikulatuta dauden eta ikasteko zailtasunak dituzten neska-mutikoei laguntza psikopedagogikoa jaso dezaten.

Hirugarrena. Oinarriak

Vitoria-Gasteizko Udaleko Tokiko Gobernu Batzarrek 2026ko ekainaren 12an onartu zituen, eta ALHAOn argitaratuko dira.

Laugarrena. Zenbatekoa

Deialdiaren zuzkidura 170.000,00 eurokoa da.

Bosgarrena. Eskabideak aurkezteko epea

Eskabideak eta agiriak aurkezteko epea oinarri hauen deialdiari dagokion testu-zatia ALHAOn argitaratzen den egunaren biharamunean irekiko da, eta 2026ko irailaren 18ra arte egongo da irekita (egun hori ere barne). Eskabideak epez kanpo aurkeztea diru laguntzak emateko prozeduratik kanporatzeko arrazoi izango da.

Vitoria-Gasteiz, 2026ko ekainaren 12a

Kultura eta Hezkuntza Saileko zinegotzi ordezkaria
SONIA DÍAZ DE CORCUERA RUIZ DE OÑA